

2025-2030

Plan estrategikoa



EGOAIZIA

www.egoaizia.org



Egoaizia amesten,
jarduten eta eraikitzen
duen komunitate baten
isla da



EGOAIZIA

AMORE EMAN BARIK

Beste mundu hobe bat posible dela sinetsita, Egoaizian tokitik lan egiten dugu gizarte bidezkoagoak, solidarioagoak, feministagoak eta jasangarriagoak eraikitzeko.

Lagun maiteok

Egoaizia une berezi batean dago. 2025-2030 aldirako Plan Estrategiko berri honek, 25 urteko konpromiso eta ekintzak ospatzen harrapatu gaitu. Mende laurden honetan, ametsak, erronkak eta lorpenak partekatu ditugu, betiere pertsonen duintasunaren eta planetaren zaintzaren alde lan eginez.

Urteurren hau ez da ospatzeko arrazoia bakarrik; aurrera begiratzeko aukera ere bada. Hurrengo sei urteek etengabe aldatzen ari den mundu baten beharrei erantzuten jarraitzeko erronkak markatuko dituzte, non gatazka zahar zein berri eta desberdintasun fokuekin topatuko garen. Ondoan ditugun komunitateekin dugun konpromisoa sendotu nahi dugu, gure lan lokala eta globala indartu, eta nola ez, persona, leku eta ekintza eraldatzaileak lotuko dituen elkartasun zubia ere izan.

2025-2030 Plan Estrategikoa dokumentu bat baino askoz gehiago da; gure esentziaren sintesia da, 25 urteko ikaskuntzarena, eta etorkizun bidezkoago, solidarioago eta jasangarriago batekin berritutako konpromisoarena. Eibartik Latinoamerika eta Afrikaraino, aldaketa-haziak ereiten jarraituko dugu, elkarrekin errealitateak eralda ditzakegularen ziurtasunarekin.

Urteurren hau baliatu nahi dugu bide honetan parte hartu duzueni eskerrak emateko: Egoaizia gaur egun den bezalakoa izatea ahalbidetu duten boluntario, erakunde, komunitate eta laguntzaileei. Eskerrik asko historia honen parte izateagatik eta gurekin eraikitzen jarraitzeagatik.

Jarrai dezagun amets egiten eta elkarrekin jokatzeko, aldaketa hemen eta orain hasten baita.

Maitasunez eta esker onez,



NOR GARA?

Egoaizia Eibarren jaio zen 2000. urtean, bidegabekeria sozialaz arduratutako eta errealitatea aldatzeko antolatzea erabaki zuten emakume talde batek bultzatuta. Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea (GGKE) gara, independentea, irekia eta kolaboratzailea, gizarte eraldatzeko eta gizarte bidezkoagoak, demokratikoagoak, solidarioagoak eta feministagoak eraikitze konpromisotik lan egiten duena.

Honako hauekin dugun konpromisoaren arabera definitzen dugu geure burua:

- **Gure lankide diren pertsonen eta komunitateen garapen integrala**, betiere haien erritmo, kultura eta testuinguruekiko hurbiltasunetik eta errespetutik abiatuta.
- **Errealitate ekitatiboagoak, bidezkoagoak, demokratikoagoak, solidarioagoak, jasangarriagoak eta feministagoak** eraikitzea, beste eragile batzuekin lankidetzan.
- **Begirada feminista** gure erakundeko maila guztietan, berdintasuna eta aniztasunen aintzatespena sustatuz.
- **Ezagutzak, ikuspegiak eta balioak trukatzea**, elkarrekiko ikaskuntza sustatuz.
- **Egiturazko bidegabekerien salaketa eta eraldaketa**, ikuspegi kritiko eta konprometitu batetik.
- **Gizarte eredu berriak sustatzea**, arduratsuagoak, parte-hartzaileagoak eta jasangarriagoak.

Gure lanak honetan datza:

- **Parte-hartzea eta boluntarioria indartzea**, gizarte-aldaketaren eragile gisa.
- **Bizimodu arduratsuagoak eta jasangarriagoak** proposatzea, planetarekin harmonian eta pertsonen ongizatea bermatuz.
- **Kontzientziak piztea eta esperientziak trukatzea**, gizarte eraldatzeko hezkuntzaren bidez.
- **Gizarte eraldatzen laguntzeko antolatzea eta konpromisoa hartzea**, pertsona guztiek giza garapen iraunkorra lortu ahal izan dezaten.



GURE IKUSPEGIA

Pertsona guztiek, planetarekin harmonian, giza garapen jasagarria eta berdintasunerako aukera lortuko duten mundu batekin amets egiten dugu. Hori lortzeko, gure balioak partekatzen dituzten pertsonekin eta erakundeekin lan egiten dugu elkarrekiko ikaskuntzan, elkartasunean eta lankidetzan oinarrituz

GURE BALIOAK

Pertsonekin, planetarekin eta justizia sozialarekin dugun konpromisoa islatzen duten printzipioek arautzen dute Egoaia:

- **Pertsonen duintasuna:** Dimentsio guztietan, gure lan guztiaren oinarri gisa.
- **Justizia soziala:** Ongizate ekitatiboa bermatzeko bide bakarra.
- **Ekitatea eta feminismoa:** Genero berdintasuna, aniztasunen aitortza eta desberdintasunen murrizketa sustatzen ditugu gizarte justuago eta feministago baterako.
- **Elkartasuna eta lankidetzatza:** Komunitateekin eta erakundeekin soinez soin lan egiten dugu.
- **Jasagarritasuna:** Bizimodu arduratsuak eta naturarekin orekan daudenak sustatzen ditugu.
- **Parte-hartzea eta ahalduztzea:** Errealitatea eraldatzen eta humanizatzen duten prozesuak errazten ditugu.
- **Gardentasuna:** Baliabide publiko eta pribatuen kudeaketa etiko eta arduratsua bermatzen dugu.
- **Hurbiltasuna:** Tokian tokiko lana bultzatzen dugu.
- **Sareko lana:** Gure ekintza guztietan, erakunde eta pertsona konprometitu eta antolatuekin batera.

Aldaketarekiko konpromisoa

Egoaizian pasioz, elkartasunez eta arduraz lan egiten dugu, eraldaketa posible dela sinetsita. Egiten dugun ekintza bakoitzak lan egiten dugun komunitateen errealitatea aldatzea eta gizartean kontzientzia kritikoa sortzea du helburu.

ZER EGINGO DUGU?

Egoaiziak interkonektatuta dauden bi mailetan zentratzen du bere “**gLocal**” lana: globala eta tokikoa, beste pertsona, erakunde eta partaidetza komunitarioaren sareko lanarekin indartutakoa:



MAILA GLOBALEAN



TOKI-MAILAN



MAILA GLOBALEAN

1. Garapenerako lankidetzak

Komunitateekin bidea egiten dugu, haien garapen integrala sustatuz, haien amets, behar eta gaitasunei erantzuten dieten proiektuen bidez, haien erritmoak, kulturak eta testuinguruak errespetatuz. Elkarriketan, elkarrekiko ikaskuntzan eta bizikidetzan oinarrituta lan egiten dugu, haien autonomia eta iraunkortasuna indartzeko.

2. Ekintza humanitarioa

Berehalako ekintzak burutzen ditugu gatazken, larrialdien eta hondamendi naturalen testuinguruetan, Afrikan eta Latinoamerikan. Lotura hirukoitzaren ikuspegiaren arabera, premiazko laguntza humanitarioa garapen jasagarriaren estrategiekin eta bakearen eraikuntzarekin lotzen dugu, konponbide iraunkorrak sortuz. Horiek komunitateen erresilientzia indartzen dute, egonkortasuna sustatzen dute eta garapen duin eta jasangarrirako baldintzak sortzen dituzte.



TOKI-MAILAN:

3. Gizarte-eraldaketarako hezkuntza

Gure tokiko lana kontzientzia kritikoa eta konpromiso soziala sortzen duten hezkuntza prozesuetan oinarritzen da:

Kontzientzia kritikoa sortzea: Hainbat errealitate hurbiltzen dituzten prozesu eta jardueren alde egiten dugu, desberdintasunen egiturazko kausak salatuz eta planeta eta pertsona guztien ongizatea neurri berean lehenesten duten alternatiba bidezkoagoak proposatuz.

Partaidetza komunitarioa: Boluntariora sustatzen dugu eta truke-esperientziak eskaintzen ditugu, pertsonen eta lan egiten dugun komunitateen arteko lotura solidarioak eraikitzeko.

Eragin politikoa: Plataformekin eta erakundeekin batera lan egiten dugu tokiko politika publikoetan eragiteko, nazioarteko lankidetzara eta garapen jasangarria lehenetsiz.

2025-2030 aldirako funtsezko estrategiak

1. “Tokiko” eraldaketa sustatzea
2. Aliantzak indartzea:
3. Herritarren parte-hartzea bultzatzea
4. Finantzaketa dibertsifikatzea
5. KONPROMISOZ JOKATU



ERALDAKETA “GLOKALA” SUSTATZEA

“Tokiko” eraldaketa sustatzea: Gizarte Eraldaketarako, Garapenerako Lankidetzarako eta Ekintza Humanitariorako Hezkuntza konektatuz

Maila globalean, eskualde eta herrialde berrietan eraldaketa prozesuak bultzatzea, gure misioarekin bat datozen tokiko erakundeekin aliantzak ezarriz eta garapen integral eta jasangarria sustatuz, komunitateen testuinguruak eta erritmoak erabat errespetatuz.

Arlo humanitarioan, larrialdiei erantzuteko dugun gaitasuna hobetzea, lokalizazioaren aldeko konpromiso sendoarekin, estrategia jasangarriak, bakearen eraikuntza eta eragin positibo eta iraunkorra bermatuko duten ikuspegi berritzaileak txertatuz.

Maila lokalean, gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta kontzientzia kritikoa indartzea, tokiko eta globaleko errealitateak lotuz.

Maila guztietan, Hegoalde-Iparalde trukea sustatzea, elkarrekin ikasteko eta emakumeen eskubideen, ingurumen jasangarritasunaren eta giza eskubideen alde lan egiteko, gure konpromisoa ikusaraziko duen hezkuntza baliabideak sortuz.

ALIANTZAK INDARTZEA

Tokiko eta nazioarteko eragileekin loturak sendotuz, gure eragina ikusgarriago eta zabalago eginez.

Tokiko eta nazioarteko eragile gakoekin aliantza estrategikoak finkatzea, eta lankidetzaz-sareak sendotuz, aliatu diren erakundeekin harreman iraunkorrak indartzea.

Sentsibilizazio, komunikazio eta ikusgarritasun kanpainen bidez, gure ekimenek aitortza eta babesa jasotzea bultzatzea, eta politika publikoetan eragin handiagoa lortzea.



HERRITARREN PARTE-HARTZEA BULTZATZEA

Boluntariotzaren eta gure lankideen konpromisoa zainduz eta sustatuz.

Parte-hartze aktiborako guneak sortzea, herritarrak gure ekintzetan parte hartzera motibatuz, kontzientzia kritikoa eta konpromiso soziala piztuz.

Boluntariotza zaindu eta indartzea, Egoaiziarekin lankidetzan aritzen diren pertsonak baloratutak eta epe luzez konprometitutak sentitzen direla ziurtatuz.

FINANTZAKETA DIBERTSIFIKATZEA

Diru-sarrera publiko eta pribatuen iturriak sendotuz eta zabalduz

Gure finantzaketa-iturriak dibertsifikatzea, erakunde publikoen, pribatuen eta ekarpen indibidualen laguntza konbinatuz. Jasangarritasun ekonomikoa bermatzea, eta, aldi berean, gure ekintzen inpaktua zabaltzea.

KONPROMISOZ JOKATU

Gogoeta egin eta mundu hobe bat posible dela sinetsita jardun, beti ere gure leloak gidatuta: **“Amore eman barik”**



Tokikotik eta globaletik, zubiak
eraikitzen ditugu mundu duinago,
bidezkoago, feministago,
solidarioago eta iraunkorrago
baterako.

**Egoaizia, elkarrekin
aldaketarantz.**



EGOAIZIA

Torbio Etxeberria 26 Ap. 77, 20600 Eibar
egoaizia@egoaizia.org
+34 943 20 36 32



www.egoaizia.org